



AGINDUA, LEHENENGO LEHENDAKARIORDE ETA SEGURTASUNENKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA SORTZEKO LEGE AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA ERABAKITZEN DUENA.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarenak, arauak egiteko prozedura arautzen du, eta 4.1 artikuluan ezartzen du gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburu titularren aginduz hasiko direla prozedura horiek.

Lege-aurreproiektu hau egiteko prozedura aipatutako 8/2003 Lege horretan aurreikusitakoaren arabera egingo da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedapen iragankorra aplikatuz.

Agindu honetan aipatzen den prozeduraren antolamenduak, hasieratik bertatik, araua egitearen egokitasunari buruzko erabaki bat hartzea eskatzen du, bai eta haren beharrari eta bideragarritasunari buruzko hausnarketa bat egitea ere.

Horregatik guztiagatik, eta 8/2003 Legearen 5.1 artikulua arabera hasteko aginduak ezinbestean izan behar duen edukian oinarrituta, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Prozedura hastea eta eskumena.

1. Agindu honen xedea da agintzea Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea.
2. Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legeak 4.1 artikuluan xedatzen duenez, «xedapen orokorrek egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da».

Arau honen xedea Zibersegurtasun Euskal Agentzia sortzea denez, Segurtasun Saila da gaiaren arabera eskumena duen Saila. Beraz, araua egiteko prozedura Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Agindu bidez hasiko da.

Izan ere, batetik, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen



dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 5. artikuluan Segurtasun Sailari egiteko eta jardun-arlo hauek ezartzen dizkio: autonomia-erkidegoko polizia, herritarren segurtasuna, babes zibila eta larrialdiei aurre egitea, guztiak ere zibersegurtasunarekin/ziberdelinkuentziarekin lotuta.

Bestetik, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 6/2021 Dekretuaren 14.1. artikulua, Segurtasun Sailburuordetzari esleitzen dizkio Segurtasun Sailari dagozkion egitekoak betetzea honako arlo hauetan: pertsonen segurtasuna, ondasunak eta herritarren segurtasuna, udaltzaingoen koordinazioa, segurtasun pribatua, babes zibila eta larrialdiak.

BIGARRENA. Lege-aurreproiektuaren xedea eta helburua.

Lege-aurreproiektu honen bidez, Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzen da, Eusko Jaurlaritzaren zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, nortasun juridiko propioa duena, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa, autonomia organikoa eta funtzionala du eta Segurtasun Sailera dago atxikia.

Arauaren xedea da erakunde bat sortzea, zibersegurtasuna sustatu, zuzendu eta koordinatuko duena maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak mugatutako euskal sektore publikoan; laguntza emango diena Euskadiko lurralde historikoetako foru-sektore publikoari eta toki-erakundeei haien eskumeneko informazio-sistemen segurtasunaren eta sare elektronikoaren segurtasunaren esparruan; eta Euskal Autonomia Erkidegoa, bertako herritarrak eta enpresa-sarea zibersegurtasunean eta garapen digital seguruan treba daitezen babestu eta bultzatuko duena.

Arauan erakundearen izena eta izaera juridikoa adierazi beharko dira, bai eta haren eginkizunak, gobernu-organoak, araubide ekonomikoa, langileen araubidea eta antolamendu eta funtzionamenduko araubidea ere. Alderdi horiek guztiak oinarrizkoak dira erakundea eratzeke.

HIRUGARRENA. Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Herritarren eskubide digitalak bermatu behar direlako sortu da lege-ekimen hau, Konstituzioak 18.4 artikuluan xedatutakoaren babesean, ziberespazio ireki eta seguru bat sortu ahal izateko, eta tresna eta zerbitzu digitaletan konfiantza handiagoa sortzeko herritarren artean.

Bestalde, Autonomia Estatutuaren 17. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola segurtasun publikoaren arloko eskumena, zehazki, poliziaren eta herritarren segurtasunaren arlokoa. Aurreko eskumen hori beste eskumen batzuekin integratuta dagoela ulertu behar da, hala nola larrialdien eta babes zibilaren arloko eskumenekin. Eskumen horiek guztiek segurtasun-

sistema orokor propioa osatzen dute, nahiz eta gai horien gainean eskumenak dituzten beste administrazio batzuek ere parte hartzen duten

Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortu eta martxan jarrita, bermatzen da Eusko Jaurlaritzak gaur egungo informazioaren gizartean sortzen diren zibersegurtasunaren arloko mehatxuei eta arriskuei aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak izango dituela.

Proiektaturiko arauak, era berean, agerian uzten du Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari eman dion autoantolaketa araua, autogobernua instituzionalizatzeko eta autonomia-administrazioa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko organoak arautzeko.

LAUGARRENA. Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Agindu honen bidez lantzen hasiko den legea onartzeak ez dakar indarra hartzen duen egunean indarrean dauden xedapenak indargabetzea edo aldatzea.

Lege hori garatzeko beharrezko diren arau-xedapenak onartu beharko dira, legean bertan zehazten diren baldintzen arabera. Baldintza horien artean dago haren antolaketa eta funtzionamendua arauen bidez garatzea estatutuaren zehaztutakoaren arabera, bai eta sortutako erakundearen jarduerari hasiera emateko prozedura arautzea ere.

BOSGARRENA. Eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 10.3 artikuluan xedatzen duenarekin bat, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, etorkizuneko araua aplikatzeak dakarren kostua eta EAEko Aurrekontu Orokorretan duen eragina aztertzen dituen. Era berean, memoria horretan jasoko da arauak beste administrazio batzuetan eta ekonomian, oro har, izango duen eraginaren analisi bat ere.

SEIGARRENA. Gaia dela eta egokitzen diren izapideak eta txostenak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak agintzen duenaren arabera, prozedura hasteko aginduak adieraziko ditu zer izapide eta txosten diren bidezkoak dagokion arloan.

1.– Gobernu Kontseiluak, 2010eko abenduaren 28ko bileran, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzeko Erabakia hartu zuen, eta, erabaki horren lehen apartatua (1. puntua) xedatuta dagoenaren arabera, prozedura hasteko

agindu hau Legesarea ezagutza partekatuaren lankidetzaz-espazioan txertatuz jakinaraziko da sustatutako araugintza-ekimena.

2.– Legearen proiektua idazteko, hasteko agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara hobekien egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudia egoki eta legezko izango direla ziurtatzeko egingo diren kontsulten emaitzak ere.

Lege-aurreproiektua idatzi baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133.1. artikuluan aurreikusitako aurretiko kontsulta publikoaren izapidea egin behar da, arauak uki ditzakeen subjektuen eta haien erakunde ordezkagarrien iritzia jasotzeko; izan ere, lege-aurreproiektuak Konstituzioaren 18.4 artikuluan araututako herritarren oinarrizko eskubideari eragiten dio.

3.– Aldez aurretik onetsi beharreko arau-ekimenaren azken testua bi hizkuntzetan idatzi beharko da (euskaraz eta gaztelaniaz), legeen, legegintzako dekretuen, dekretuen edo aginduen mailako xedapen orokorrak bi hizkuntzetan egiteko neurriak onartzeko Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian xedatutakoa betetzeko.

Horretarako, eta aldez aurretik onetsi behar den testuaren euskarazko bertsioa zehatza eta gaztelaniazkoaren baliokidea —eta alderantziz— dela bermatzeko, euskarazko bertsioa Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak idatziko du.

4.– Espedientean, aipatutako memoria ekonomikoaz gain, arauaren beharrari, egokitasunari eta helburuei buruzko justifikazio-memoria ere jaso beharko da. Enpresetan duen eraginari buruzko ebaluazioa jaso beharko da memorian, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko Legeak 6. artikuluan ezartzen duena betetze aldera (16/2012 Legea, ekainaren 28koa).

5.– Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren txosten bat egingo da, horretarako oinarri gisa hartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeri matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19.1. artikulua eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak ezarritakoa. Erabaki horrek genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzen ditu eta neurriak hartzen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazi eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

Hala ere, kasu honetan ez da beharrezkoa generoaren araberako eragintxostena. Izan ere, genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzeko Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko



Erabakiz onartu ziren jarraibideetako lehenengoak (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpen bidez argitaratuak) 2.1.b) apartatuan jasotakoaren arabera, antolaketa-izaera bakarrik duten arau-proiektuak salbuetsita daude txosten hori egitetik.

Hori guztia gorabehera, EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundeari eskatu ahal izango zaio aipatutako 4/2005 Legearen 19.6 artikuluan aurreikusitako txostena egitea, artikulua hori behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egiteko.

5.– Dokumentu horiek egin ondoren, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak dekretu-proiektuari aldez aurreko onespena emango dio, agindu bidez.

6.– Aldez aurreko onespeneren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluan 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz (ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketaren ondoren).

7.– Aldez aurreko onespene-agindua eta dagokion lege-proiektua Legesarea lankidetzaguneari argitaratuko dira (2010eko abenduaren 28ko Agindua, 1.2 atala).

8.– Justizia Araubidearen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak horri buruzko txosten juridikoa egingo du. Txosten horretan, aurreproiektuaren funts objektiboa aztertuko du, bai eta edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzen dituen ere, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.– Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege-aurreproiektua Jaurlaritzako sailei helaraziko zaie, parte har dezaten eta kontsulta egiteko.

10.– Antolamenduko xedapena denez, ez da proiektuaren entzunaldia egingo, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legeak 8.5. artikuluan xedatutakoaren arabera, nahiz eta aurreproiektuaren edukia aintzat hartuta, beharrezkotzat jotzen den jendaurreko informazio-aldiaren izapidea egitea, aipatutako Legearen 8.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

11.– Ez da beharrezkoa izango Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

12.– Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, bidezkoak, nahitaezkoak edota komenigarriak izan daitezke kontsulta-organoen izapide eta irizpen hauek, izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako momentuan eta moduan:

- a) Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1. a) artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.
- b) EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) 19.6. artikulua betez, lege horrek xedatutakoa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egiteko.
- c) Beste administrazio batzuei kontsulta egiteko izapidea. 6/2022 Legearen 18. artikulua ezarritakoaren arabera, egitekoa den arauketak zuzen-zuzenki eragiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei helaraziko zaie proiektua, parte har dezaten eta kontsulta egiteko. Kasu honetan, foru-aldundiei (foru sektore publikoa) eta toki-erakundeei helaraziko zaie. Horrenbestez, Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duen udalerrri-elkartea den aldetik, parte har dezan eskatuko da, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2016ko maiatzaren 26ko Aginduarekin bat etorriz.
- d) Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena. Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren arabera, Aurrekontu Zuzendaritzari esleitutako eginkizunen artean dago eduki ekonomiko nabarmena duten arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta akordioei buruzko txostenak egitea, aurrekontu-eragina ebaluatzeko eta dagozkion doikuntza-neurriak proposatzeko. Hori guztia, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko testu bateginak 27.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- e) Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, 6.1.a) artikuluan Zuzendaritza horri esleitzen dion eskumena erabiliz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak 18.a) artikuluekin lotuta.

- f) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2.1. artikulua.
- g) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalak Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1.d) artikulua.
- h) Enpresetan duen eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren arabera, «1. Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak, bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz.». Txosten hori nahitaezkoa izango da xedapen orokorrak egiteko prozeduran.

Beraz, teknikoki nahitaezkoa bada ere, nahikoa izango da justifikazio-memorian aipatzea, 4. puntuan ezarritakoarekin bat etorrira, proiektaturiko arauaren xedeak ez baitu inolako eraginik enpresak sortzen, abian jartzen eta haien funtzionamenduan.

- i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari dagokio aholkularitza-eginkizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeak sortzea xede duten eta kontratazio publikoaren eremuan eragina duten xedapen-proiektuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30.2 a) artikuluan ezarritakoaren arabera..
- j) Aurreproiektuari buruzko txostena eskatuko zaio Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari, 6/2022 Legearen 21. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91.1 artikulua ezarritakoarekin lotuta; izan ere, xedapen orokorraren proiektuak berariaz eragiten die foru-aldundien eta toki-erakundeen eskumen propioei.
- k) Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharrekoa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4 a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen



testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluaren jasotako aurreikuspenei dagokienez (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren bidez onartua).

- l) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, batzorde hori arautzen duen azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikulua betez; izan ere, lege-aurreproiektuei buruzko kontsulta egin behar zaio, horien gaia eta xedea edozein dela ere.

13.– Esparru horretan, eta Jaurlaritzaren Legearen 56.2 artikulua betez – Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketaren arabera–: «Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten».

14.– Halaber, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen xedatutakoaren arabera, Legegunean argitaratuko da, lege horretan xedatutako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko.

15.– Aurreproiektuaren izapideak amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak zehaztuz, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 10.2 artikuluan ezarritakoa betez. Memoria horretan berariaz aipatuko da proiektutako arauak eragingo dituen administrazio-kargen eragina.

ZAZPIGARRENA. Idazketa-sistema.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, aurreproiektua bi hizkuntzetan idatziko da, publizitate ofizialaren ondorioetarako.

Horretarako, IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) testua itzuliko du, arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren Erabiltzailearen Eskuliburuan eta Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian (lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzetan egiteko neurriak onartzen dituen) aurreikusitakoaren arabera.

ZORTZIGARRENA. Hasteko agindu hau bidaltzea.

Agindu hau Justizia Araubidearen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzara bidaliko da, aipatutako lege-aurreproiektua egin eta prozedura izapidetu dadin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio.
Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua